- Informazioaren Gizarteak EAEko enpleguaren gainean dituen eragin eta ondorioak.
- Europako gai honetako orientazioak.
- EAEn eskatu eta eskaintako enplegurako lanbide gaikuntzen eta soslai profesionalen bilakaera (zenbatekoketa eta osaera, ezagupeni, gaitasunei, trebetasunei, eskatutako prestakuntza maila eta abarri begirakoa), gertatzen ari daitezkeen doikuntzarik ezak eta espero denaren arabera etorkizunean gerta daitezkeenak (nola bateratu ahal den hori oraindik altua den langabezi tasarekin) eta gutxi izan daitezkeen profesional motak (zenbatekoa, gaikuntza mailak, zonak edo eskualdeak, eremu teknikoak, funtzioak, prestakuntza eta abar).
- Enplegu berriari buruzko beharrianotan eragina duten faktoreak eta lanpostuok estaltzeko eragina duten oztopo edo zailtasunak.
- EAEko prestakuntza-eskaintza (titulazioak, alderen batetik irtendakoen kopurua, prestakuntza etengabea eta abar), hezkuntza/heziketa/prestakuntzarako sistemaren erronkotarako erantzuna eta hori enpresen beharriaz edo/eta gizartearen eta lan-merkatuaren gaikuntza-beharriaz egokitzea.



Azterlana 2004ko azaroaren 11n aurkeztu zen.

Aholkularitza-enpresa lankidea: CIDE. Kontratuaren data: 2002-11-20. Prezioa: 69.718 _ (BEZ barnean sartuta).

Batzordea: Ekonomia garatzeko Lan Batzordea, M. Carmen Gallastegui andrea buru izanik.

Bilerak:

Batzordeak norbere ekimenezko azterlan honi buruzko hiru lan-bilera egin zituen:

- Apirilaren 23a: Arantza Unzurrunzaga andreak Azterlana aurkeztu zuen Batzordeko kide guztiek joatea zuten Lan Batzordearen bilkura batean (power point). Bertaratuek elkarri agiriari buruzko iritzia jakinarazi zizkieten lehen aldiz.
- Maiatzaren 7a: Batzordeak lanaren edukia eztabaidatu zuen eta haren azken kapitulua berregin beharra erabaki (Laburpenari eta Ondorioei buruzko kapitulua).
- Urriaren 8a: Idazketa berria onarturik, aho batez erabaki zen Azterlana EGABeko Osoko Bilkurari bidaltzea, berorrek onets dezan.

Onespena: Osoko bilkura, 2004ko azaroaren 10ekoa, Lan Batzordeko presidentek haren emaitza nagusiak aurkeztu zituen.

Hura prentsari aurkeztu den data: Azaroaren 11.

EGITEN ARI DIREN AZTERLANAK

EAE-N enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboak

Euskadiko EGABeko arduradun teknikoa: Patxi Sasigain.

Helburua: Euskal Autonomia Erkidegoan azken urteetan ondo ari da portatzen ekoizpen-jarduera. Hori dela eta, enplegua oso igo da eta langabezia jaitsi: 1995ean langabezi tasa %23,8koa zen; eta 2000n, %13,7.

Lan-merkatuak bilakaera ona izan du bosturteko honetan, baina zenbait alderdi edo oztupo nabarmenkiago azaltzen ari dira urteotan. Nagusietakoak dira langabezia eta kontratazioa generoaren edo adinaren arabera banatzeko dauden ezberdintasun handiak: zenbait talde edo kolektibok beste batzuek baino zailtasun handiagoak bide dituzte enplegua eskuratzeko. Arazo hori zabal daiteke talde horiek eskuratu ahal duten enpleguaren kalitatera bertara eta behin-behinekotasun handiagora ere, epealdi honetan gertatu den enpleguaren igoera eta langabeziaren urripeneranzko amankomuneko bilakaeraren barruan. Horrela, ezberdintasun handiak ikus daitezke gazteen eta emakumeen langabez tasetan gainerako taldeen aldean. Diferentziotariko batzuk are handiagotuko lirarteke, aldagaiok iritsitako ikasketa mailekin gurutzatuko bagenitu.

Gure lan-merkatuan langabezi tasa Europako batezbestekoaren gainetik mantendu da ekonomia hedatzen aritu den garaian ere. Horrelako egoeretan garrantzitsua da ondo jakitea zergatik ez den lortzen (zenbait enplegu-politika aktibo abioan jarririk ere) tasa hori dauden giza baliabideen erabilpen egokiarekin bateratu ahal diren mailalara jaisterik (hori langabezi tasa naturalaren modura uler daiteke). Demografiako talde jakin batzuen enplegua (gazteena, emakumeena, 45 urtetik gorakoena eta minusbaliatuena) ahalbidetzeko hartu diren ekonomi politikak, dirudienez, ez dira taldeon langabezi tasak beste talde batzuenen antzeko mailalara jaisteko nahiko; izan ere, itxura denez, ez diote arazoari errotik erasotzen: neurriok epe laburrerako konponbide modukoak dira eta ez bide dute kontutan hartzen taldeok zailtasunak izatearen benetako zioa.

Azterlan honetan eman gura da lan-merkatuan baztertutako taldeak urritzea epe luzera ahalbidetzen duten politikak diseinatzeko gakoren bat. Garrantzitsua da arazoa epe laburrera urritzea, baina hori baino garrantzitsuagoa da arazoa ahalik eta behin-betikoen konpontzeko oinarriak finkatzea. Gure lan-merkatua hobeto ezagutu eta ulertzea funtsezkoa da langabeziaren arazoa epe luzera konpontzeko.

Azterlanaren egilea: Euskal Herriko Unibertsitateko Azterketa Ekonomikoaren Oinarrietako Saila (II) (lantaldea Arantza Ugidos ikertzaile arduradun andreak zuzendu du).

Kontratuaren datua: 2004-2-11. Prezioa: 40.000 € (BEZ barnean sartuta).

Batzordea: Izendatu gabe.

Gizarte politikak EAE-N eta EB-N

Euskadiko EGABeko arduradun teknikoak: Arantza Unzurrunzaga andreak egin-dako definizioa eta hasiera. Jarraipena: Leire Ozerin andrea.

Helburua: EAEn dagoen gizarte babesaren maila eta aplikatzen joan diren gizarte politikak aztertzea. Honakook ditugu azpi-helburuak, besteak beste:

Europako Ongizatearen Egoerari buruzko egungo eztabaida nagusiak berrikustea.

Europar Errukiarrari buruz gogoeta egitea: Gizarte Politika Gizarterapen-politika bezala. Horretarako, Europako Batzordearen Gizarte Politikako gidalerroak eta, bereziki, Nizako Itunbenaren ondoriozkoak aztertu behar dira.

15en Europar Batasuneko herri nagusiek burututako Nazio Ekintza Planak (NEPak) aztertzea, eta NEPetan sarturik ez dauden beste adibide esanguratsu batzuk, zertarako-eta Gizarte Politikari buruzko Eginera Onei buruzko eskuliburua egiteko.

Honakoa ikustea: zein neurritaraino diren EAeko aurrerapenean Estatu espainiarrean eta Europar Batasunean lortutako antzekoak ala bestelakoak. Era berean, honako galderok dira erantzun behar zaienak: Zertan egin da aurreren? Zein arlo geratu da geldirik? Zein gai jorratu behar da bilakaerak erritmo nahikoari jarrai diezaion?

Aholkularitza-enpresa lankidea: DATLAN. Kontratuaren data: 2002-11-20. Prezioa: 85.000 (BEZ barnean sartuta).

Batzordea: Izendatu gabe

Garapen iraunkorra, ingurumen alorreko politika publikoen erronka. EAE-N ekonomia, gizarte eta ingurumen alderdiak batuko dituen garapen iraunkorreko estrategia jorrazeko ildoak definitzeko azterlan konparatua.

Euskadiko EGABeko arduradun teknikoa: Arantza Lopez de Munain Zulueta

Helburua: Azterlanaren xedea gizarte eta ekonomi iraunkortasunaz gain ingurumen-iraunkortasuna bilatzen duten herri politikek gure inguruan aurrera egiten duten norabideari buruzko ahalik eta ikusmolde zehatzena lortzea da, bai Europar Batasuneko nazioz gaindiko mailan bai, "eginera onei begira, nazio eta erregio maila erkatuan. Hartara, haien bitartez ondorio egokiak atera ahal dira EAEn ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren aldetik eusteko moduko garapenerako Estrategiari heltzeko moduari buruz. Azterlanaren arabera, sakontasunez aztertu behar da Europar Batasuna eusteko moduan garatzeko Estrategia, horren elementu aplikazio guztietan; eta ekonomi, gizarte eta ingurumen aldagaiak sartu dituzten eta gure gizarte-ekonomiazko inguruko erregioetan eta herrietan diseinatu eta abiarazi diren Garapen Euskorrerako Estrategiak. Gauzak horrela, gure Autonomia Erkidegoan buruturiko ekimenak ebaluatu eta EAeko Garapen Euskorrerako etorkizuneko Estrategiaren helburu eta konpromiso ekonomikoak, sozialak eta ingurumenari buruzkoak barnean hartzen dituen plangintzarako irizpide-proposamena zehaztu beharra dago.

Edukia:

- Eusteko moduko Garapena: Kontzeptuaren sorrera eta bilakaera.
- Eusteko moduko Garapenerako Europako Estrategia: Bertako oinarriak, prozedurak eta tresnak eta programa- eta sektore-garapenak xehetasunez aztertzea.
- Gure gizarte-ekonomiazko inguruko erregioetan eta herrietan diseinatu eta abiarazi diren Garapen Euskorrerako Estrategiak aztertzea. Zehazki, Suediako, Danimarkako, Erresuma Batuko, Holandako, Nord-Rhein Westfallengo, Valoniako, Kataluniako eta Eskoziako esperientziak aztertu dira.
- Aurretiko azterketa erkatuaren testuinguruan EAeko Garapen Euskorrerako Estrategia ebaluatzea, bereziki ingurumen aldagaia kontutan harturik.
- Gizarte, ekonomia eta ingurumena barnean hartzen dituen EAeko Garapen Euskorrerako etorkizuneko Estrategia egiteko arauak zehaztu eta gomendatzea.

Aholkularitza-enpresa lankideak: LKS Consulting eta Wuppertal Institute for Climate, Environment and Energy

Kontratuaren data eta zenbatekoa: 2003ko urriaren 1a, 161.750 €.

Azterlana oraindik ez da bukatu, baina zati handia egin da dagoeneko. Hura egin den bitartean, lanen ibilerari buruzko gogoeta eta balorazioa egiteko bilerak egin dira. Bilerotan parte hartu dute EGABeko erakundeen ordezkariak, haren Batzorde Iraunkorrak izendatuak. 2004an 7 bilera egin ziren: otsailaren 6an, martxoaren 9an, apirilaren 9an, ekainaren 29an, uztailaren 23an, urriaren 18an eta azaroaren 30ean.



2004ko ekainaren 29ko lan-bilera



III

Erakunde-Jarduera

Erakunde-Jarduera

Ordezkatuta dauden erakunde, entitate eta elkarteek beren arteko harremana biziagotu dute Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen barruan. Lan Batzordeez gain, Batzordekideek informazio, prestakuntza eta halako bileretan sarri hartu zuten parte. Era berean, Batzordeko Lehendakariak batzordekide guztiekin eta banan-banan hitz egin eta harremanak izateko bidea sakon jorratu zen.

Erakundearen ordezkartzari dagokionez, Batzordeko arduradunak EAEn aritzen diren erakunde, enpresa, komunikabide, antolakunde eta elkarte desberdinek gonbidatuta, ekitaldi, kongresu, mintegi eta mahainguru ugaritan izan ziren.

Era berean, EGABeko teknikariek, urtean zehar, gure erakundean egiten duten lanaren garapenerako interesgarri ziren jardunaldi, mintegi, ikastaro edo foro interesgarrietan parte hartu zuten.

Kideko erakundeekiko mugaz harantzagoko lankidetzaz eta autonomien esparruetako nahiz Europa mailako beste Gizarte eta Ekonomia Arazoetarako batzorde batzuekin izandako topaketak gehitu egin dira 2004an, kapitulu honetan jasotzen denez, bilera eta bisita ugari egin dira-eta.

Euskadiko EGABek ere bisita eta bilera ugari izan ditu bai gure erkidegoko erakundeekin bai kanpokoekin. Hona hemen esanguratsuenak:

ERAKUNDEEN BISITAK ETA BILERAK

- **2004/03/28, Bilbo, bisitaria:**

Thyierry Fraiser. Frantziako kontsula. EGABek alboko herriarekin dituen harreman zabalen barruan sarturiko protokolo-bisita.

- **2004/05/24-30, Seul:**

Euskadiko EGAB **Emakumeen Munduko Gailurrera (Global Summit of Women-era)** joan zen, "Emakumezko Davos" bezala ere deiturikora. Urte horretan gailur hori

Hego Korean egin zen. Batzordea 50 pertsonal baino gehiagok (gehienak emakumezko enpresariak ziren) osatutako euskal ordezkariak ugariarekin batera joan zen. Euskadiko EGABek, Bizkaiko Aldundiak, Emakundek eta Lan Ekintzak beren erakunde-laguntza eskaini zioten EZAE Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkarteari. Elkarte honek hainbat topaketa eta aurkezpen antolatut zituen Bilboko kandidatura 2006ko Gailurrerako egoitza bezala era ofizialean aurkezteko helburuz. Lan-marko honetan bilerak egin ziren Koreako Merkataritza Ganberarekin, Koreako Industrien Federakundearekin, Seulgo alkatearekin eta Espainiaren enbaxadorekin, beste batzuen artean.



Goiko argazkian: Koreako Industrien Federakundearekin izandako topaketa. Behekoan: Koreako Merkataritza Ganberaren egoitzako topaketa, Seung a Woon Kim Nazioarteko Arazoetarako presidenteordearen eta euskal ordezkariaren artekoa.

Euskal ordezkariak honakook izan ziren: Josune Barrena EZAEko presidentea, Olga Algar ohorezko presidentea, Helena Kauffman presidenteordea, Charo Lorenzo eta Mariasun Belamendia Zuzendaritza Batzakoak, Maria Caballero idazkari teknikoa, Teresa Querejazu Bilboko Merkataritza, Industri eta Nabigazio Ganberakoa, Rafael Puntonet Euskadiko EGABeko presidentea, Maje Sáez Euskadiko EGABen Prentsako arduraduna eta Iñigo Atxutegi Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi Sustapeneko zuzendaria.

• 25-06/04, Bilbo, bisitariak:

Gizon eta emakumeen berdintasunerako lege-aurreproiektua zela eta, Irizpen-aurreproiektuari buruzko lehenengo proposamena aztertu zen. Arauaren arlo garrantzitsuei buruzko iritzi-ezberdintasunak ikusi ziren, baita arauko oinarri-ziko gaiei buruzko zalantzak ere. Hori zela eta, informazio zabalagoa biltzea erabaki zen. Horretarako bi agerraldi-bilkura antolatu behar ziren. Honakook agertu ziren:

Txaro Arteaga, andrea, EMAKUNDEko zuzendaria

Izaskun Moyúa, andrea, EMAKUNDEko idazkari nagusia

Ander Bergara, jauna, Legea egiteko koordinatzaile teknikoa

Edukia: Taldeko kideek lege-zko ekimen honen aurrekoak, helburuak eta irismena lehen eskutik ezagutzeko aukera izan zuten, baita Irizpena egiteko eztabaidetan zehar haren artikuluei buruz sortutako zenbait zalantza argitzeko ere.



Emakundeko taldea, Euskadiko EGABen aurreko bere agerraldian

16/09/04, Bilbo, bisitariak:

Gloria Moreno, Alcaláko Unibertsitateko irakasle andrea. “Emakumeen Espainiako lan eta gizarte errealitateko egoera”z mintzatu zen.

Mertxe Larrañaga, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle andrea. “Lana eta familia uzartu eta lana gizon eta emakumeen artean banatze”ari buruzko bere txostena aurkeztu zuen.

Teresa Sáez, Indarkeria Sexistaren aurkako Emakume Plataformako kide andrea. “Genero-indarkeriari eta lehen mailako gizarte arazorako konponbideei” buruzko gaiak aritu zen.

Topaketa horiek Gizarte Garapeneko Batzordeak hala eskatuta egin ziren. Bertan, Batzorde hori emakumeen eta gizonen berdintasunerako lege-aurreproiektuari buruz aritu zen.



Euskadiko EGABek gonbidatutako adituak, hitzaldia ematen

2004/05/10-11, Bilbo, bisitariak:

SERV Social Economische Raad van Vlaanderen (Flandriako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea) batzordearen arduradunak, lanerako bisitan etorriak.

Flandriako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen aldetik etorri ziren ordezkariak honakook izan ziren: Kris Peeters aipatu batzordeko burua, Pieter Kerremans batzorde horretako zuzendari nagusia eta Paul Berckmans eta Ria Van Peer, hurrenez hurren, Berrikuntza eta Enpleguko eta Nazioarteko Harremanetako zuzendariak. Bilbora etorri ziren erakundeek elkar ezagutzen sakontzera eta lankidetzar-erloto zehatzak jorratzera. Bilera-egitaraua burutu zen eta bileretan Euskadiko EGABeko buruekin biltzeko eta erakunde bien jardueretan eta ezagupenean sakontzeko aukera izan zuten Flandriako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ordezkariak.

Erregioetako gizarte eta ekonomi interes ezberdinen ordezkariak diren erakundeek, hala nola, Europako erregioetako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak Europar Batasuneko politikek ukituriko gaiekin loturiko irizpenak eta iritziak erkidego-egoitzara eraman ahal izatea batzorde bion Europako eremuko lankidetzarako arlorik egokienetakoa da, bilerotan adierazitakoaren arabera.



Eusko Legebiltzarreko presidenteak Flandriako ordezkariak hartu zuen

Bisita Flandriako ordezkariak Euskal Herriko gizarte eta ekonomi errealitatea hobeto ezagut dezan egindako kanpoko lan-bilerekina osatu zen (SPRI; Ogasun eta Finantza Saileko buruordea; Justizi, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila eta Eusko Legebiltzarra).

• **2004/10/19, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.**

Eusko Jaurlaritzaren egoitzako erakunde-topaketa, Idoia Zenarruzabeitia lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazio Saileko buruarekikoa eta Joseba Andoni Alcalde Lehendakariordetzako idazkari nagusiarekikoa. Bilera edo topaketa honetara, EGABen aldetik, bertako presidentea eta Prentsa eta Dokumentazioko arduraduna joan ziren. EGABek aribideko berriztapen prozesuaren eta lanen berri eman zuen.

• **2004/10/14-15, Brusela.**

Euskadiko EGAB Bruselara joan zen Flandriako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ordezkariekin biltzera eta Europako erakundearen ordezkariekin baterako lan-bilerak izatera. Euskadiko EGABen aldetik, Rafael Puntonet



bertako presidentea eta Arantza Lopez de Munain azterlan eta proiektuetako arduraduna; eta, Flandriako EGABen aldetik, Pieter Kerremans batzorde horretako zuzendari nagusia eta Ria Van Peer Nazioarteko Harremanetako zuzendaria.

Elkarrizketan aritu ziren Christian Gsdam elkarteekiko harremanak eta subsidiaritasuna kontrolatzeko Unitateko buruarekin, Elisa Garosi Erregioetako Batzordearen azterketa politikorako, azterlanetarako eta erakundearteko legegintza-plangintzarako Unitateko buruarekin, Patrick Venturini Europako Ekonomi eta Gizarte Batzordeko idazkari nagusiarekin, Friedrich Rath erakundearteko harremanetako arduradunarekin eta Estatu kideetako EGABekin. Bileretan Europako erre-egioetako EGABen eta Europako erakundeen arteko lankidetzarako aukerak aztertu ziren, "Partaidetzazko Demokrazia"ren markoan bultzatutako ekimenen eremuko lankidetzarako aukerak zehazki.

- **2004/11/03- Gasteiz, Eusko Jaurlaritz**

Euskadiko EGABen eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren arteko erakunde bilera edo topaketa. Anjeles Iztueta sailburua eta Rafael Puntonet Euskadiko EGABeko presidentea bertaratu ziren. Egiteko lanak eta aribideko berriztapen-prozesua izan ziren bertan aztertutako gaiak.



- **2004/11/17- Gasteiz, Eusko Legebiltzarra**

Eusko Legebiltzarreko agerraldia, Lan Batzordearen aurrerakoa.

EGABeko presidentek bere erakundeko agintaldiko balantzea jakinarazi zuen, egingandako jarduerak laburki errepasatu zituen eta Euskadiko EGABeko hurrengo taldeak jorratu beharko dituen gaiak aurreratu zituen, aztertzeke dauden gaiak zehazki.

- **2004/11/18-19-Valentzia**

Europako Ekonomi eta Gizarte Batzordeak gonbidatuta, Euskadiko EGABek Gailur Euro-mediterraniarrean parte hartu zuen. Gailur horretan Europar Batasuneko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 10 herri bazkide euro-mediterraniarretako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeekin biltzen dira Elkarte Euro-mediterraniarraren markoan.

- **2004/12/27-Bilbo, topaketa:**

Javier Madrazo Etxebizitza Gizarte Arazo eta Lankidetz Saileko burua Euskadiko EGABera joan zen. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko presidentek bileran erakundearen lan-arloak errepasatu zituen eta Javier Muñecas idazkari nagusi berria aurkeztu zuen. Sailburuari Batzordea berriztatzekeko prozesuaren ondoriozko berehalako presidentzi aldaketaren berri jakinarazi zion.

AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEEKIN

• Autonomia Erkidegoen urteko I. topaketa, Valladolid, 2004ko apirilaren 15a eta 16a

Honako EGAB hauetako presidentek eta idazkari nagusiak bertaratu ziren: Aragoiko EGABekoak, Asturiasko EGABekoak, Balearretako EGABekoak, Kantabriako EGABekoak, Kanarietako EGABekoak, Kataluniako EGABekoak, Gaztela-Mantxako EGABekoak, Gaztela eta Leongo EGABekoak, Ceutako EGABekoak, Extremadurako EGABekoak, Galiziako EGABekoak, Errioxako EGABekoak, Madrilgo EGABekoak, Murtziako EGABekoak, Nafarroako EGABekoak, Euskadiko EGABekoak, Valentziako EGABekoak, Espainiako EGABekoak eta Andaluziako EGABekoak.

EGAB batzordeek azken urteetan egindako jarduketan balorazioa eta Autonomia Erkidegoetako EGAB batzordeen eta Estatukoaren arteko erakunde-harremanak aztertu zituzten, beste gai batzuen artean, presidentek eta idazkari nagusiek. Halaber, Aragoiko EGABek proposatuta, Frantziako Hegoaldeko EGAB batzordeekiko harremanen egungo egoera aztertu zen. Era berean, Autonomia Erkidegoek txostenetan garatzen zituzten gaiei buruzko irizpideen homogeneizazioa eztabaidatu zen.



Bildurikoek nekazaritzako kalitatezko elikagaien merkataritza-arloei buruzko bilkura monografikoan parte hartu zuten, halaber.

• **Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeetako Dokumentazioari eta Komunikazioari buruzko II. Jardunaldiak, Las Palmas, 2004ko maiatzaren 20a eta 21a**

Kanarietako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak maiatzaren 20an eta 21ean bere egoitzan EGABetako Dokumentazioari eta Komunikazioari buruzko II. Jardunaldiak antolatu zituen. Jardunaldi hauetan honako Autonomi Batzordeon ordezkariak hartu zuten parte: Andaluziako EGAB, Aragoiko EGAB, Asturiasko EGAB, Kanarietako EGAB, Kantabriako EGAB, Gaztela eta Leongo EGAB, Gaztela-Mantxako EGAB, Kataluniako EGAB, Valentziako EGAB, Extremadurako EGAB, Galiziako EGAB, Balearretako EGAB, Euskadiko EGAB, Errioxako EGAB eta Espainiako EGABenek. Zenbait gai aztertu ziren. Beraien artean honakook nabarmendu ziren: EGABetako dokumentazio eta informazio baliabideak kudeatzea, eta Interneteko Baliabide-direktorioaren Proiektua aztertzea eta azaltzea. Proiektu horretan lanean ari dira, batera, Autonomia Erkidegoetako EGABetako dokumentazio eta informazio sailak.



EGABetako Dokumentazioari eta Komunikazioari buruzko II. Jardunaldiak

• **Autonomia Erkidegoetako EGABen urteko II. topaketa, Salamanca, 2004ko urriaren 21-22**

Autonomia Erkidegoetako EGAB guztien ordezkariak bertan izan ziren. Urteko I. topaketan aztertutako gaiak erreparasatzeaz gain, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeetako Dokumentazioari eta Komunikazioari buruzko II. Jardunaldiei buruzko azken txostena eman zen. Gaztela eta Leongo EGABek, topaketa honen kariaz, bi bilkura monografiko antolatu zituen: lehenengoa, "Kultur ondareari begirako herri ondasunen ekonomi balorazio"ari buruzkoa; eta bigarrena, "Gaztela eta Leongo Landa Ingurune"ari buruzkoa. Lehenengoan hizlari gisa aritu zen Luis César Herrero Prieto Valladolideko Unibertsitateko Enpresa Zientzietako Unibertsitate-eskolako Ekonomia Aplikatuko katedraduna. Bigarrenean tokiko adituek hartu zuten parte.

MUGAZ HARANTZAGOKO LANKIDETZA

1. Bi aldeko lankidetzaren Akitaniako CESR-rekin

Euskadiko EGABek bi aldeko lankidetzaren harremanak ditu Akitaniako Conseil Economique et Social Régional-ekin. Horrela biek etengabeko elkarriketan dihardute eta ikuspegi beretik aztertzen dituzte EAeri eta Akitaniari ardura dieten gaiak. Lehenengo Lan Batzordea sortu da. Euskadiko EGABen eta Akitaniako CESRko Eskualdeen Arteko Lankidetzarako Taldearen ordezkariak osatutako batzorde hori Akitanian eta EAEn ingurune hurbileko turismoa sustatzeko aukerak aztertzen ari da; turismo mota horrek iraunkortasun-irizpideak errespetatuko ditu eta bateratu egingo ditu eskakizun ekonomikoak, gizarte arlokoak eta ingurumenaren arlokoak. Batzordea, gainera, beste merkatu batzuei begira EAEk eta Akitaniak baterako turismo-eskaintza egiteko aukerak aztertzen ari da.


2. Mugaz harantzagoko lankidetzaren Eremu Atlantikoko Ekonomia eta Gizarte arazoetarako Batzordeekin eta beste erakunde batzuekin

Euskadiko EGAB ekonomia eta gizarte arazoetarako batzordeen eta Eremu Atlantikoko eskualdeetako antzeko erakundeen Plataformako kidea da. Arku Atlantikoko Sarea (RTA) deritzo plataforma horri. Beraren helburua da eskualdeen arteko lankidetzarako proiektuak eta politikak proposatzea, eskualde atlantikoaren lehiakortasuna nahiz gizarte- eta lurralde-batasuna sendotuko dituztenak; gainera, eremu atlantikoko eskualde guztiei ardura dieten gaiak aztertzen ditu, azterketen emaitzak aditzera ematen ditu eta erabakitzeko ahalmena duten erakundeei aurkezten dizkie, batez ere Europako Batasunari. Honako hauek ere Arku Atlantikoko

Sareko kideak dira: Kantabriako, Galiziako, Kanarietako, Ceuta, Akitania, Poitou-Charentes, Britainia, Pays de Loire, Limousin eta Centreko ekonomi eta gizarte arazoetarako batzordeak, Galesko Foro Ekonomikoak, Lisboako Eskualdeko Enpresa Elkarteak, AERLIS, Instituto de Soldadura e Qualidade (ISQ), eta Algarveko Sindikatuen Batasuna (USALGARVE/CGTP-IN).

Arku Atlantikoko Sarea 2003-2006 urteetan EGEFen kofinantzaketa jasotzen ari da, Europako Batasuneko "INTERREG IIIB Eremu Atlantikoa" ekimenaren bitartez.

RTAko organo erabakitzaile nagusiek sei hilean behin egin izan dituzte bilerrak.



Bilbo, 2004ko martxoaren 12a

RTAko Bureau-aren bilera
RTAko lehendakariak eta lehendakariordeak osatzen dute organo hori. Abiarazi berriak ziren lantaldeen jarduera-planei oniritzia eman zien, Sarearen finantza-egoera aztertu zuen eta lantaldeentzako laguntza teknikoak kontratatzea onetsi zuen. Bestalde, RTAren web orria konfiguratu eta instalatzeko proposamena hautatu zuen.

Bordele, 2004ko apirilaren 23a

Orientazio Batzordearen bilera
RTAK erabakiak hartzeko eta bere estrategiak bideratzeko duen organo nagusiak Sarea Antolatzeko Gutun berria onetsi zuen, eta lantaldeetako buruek informazioa eman zioten lantaldeen nondik norakoari buruz. Gainera, Batzordeak finantza-egoera aztertu zuen eta Sarearen komunikazio-estrategia onetsi.

Lisboa, 2004ko irailaren 10a

RTAko Bureau-aren bilera

Bureau-ak eskaera bat aztertu zuen, alegia, AERLIS bazkidearen jarduerak Instituto de Soldadura e Qualidade (ISQ) bazkideak bere gain hartzeko eskaera, eta eztabaida egin zuen lantaldeen beharrezanez buruz. Horrez gain, aurrekontu-orientazioen proposamena onartu zuen, Orientazio Batzordeari aurkezteko.



Orientazio Batzordeko kideak RTAren web orriaren edukiak aztertzen

Bilbo, 2004ko irailaren 28a

Orientazio Batzordearen bilera

RTAko osoko organoak Rafael PUNTONET DEL RIO izendatu zuen lehendakari urtebeterako, aurreko lehendakari Marcel CAZALÉ akitaniarraren lekua har zezan. Era berean lehendakariorde berriak eta Bureau berriko kideak izendatu zituen.

Bestalde, onspena eman zien Portugaleko kide berriaren sarrerari (Instituto de Soldadura e Qualidade, ISQ), 2005eko aurrekontuari eta RTAren txostenak azken fasean balidatzeko xedapenei.

Marcel Cazalék Rafael Puntoneti pasatu zion RTAko lehendakaritzaren lekukoa RTAk hiru gai landu ditu 2004. urtean:

- Salgaietarako garraiobideen aniztasuna: itsasoko garraioa, portuak eta hinterland-ak, eta kabotajea Eremu Atlantikoan.
- Segurtasuna salgaiak itsasoz garraiatzen direnean
- Ikerketa, berrikuntza eta teknologia-transferentzia Eremu Atlantikoko eskualdeetan.



Bureau-ak bilera egin zuen Lisboan

Bi lantalde, eskualde askotako kideek osatuak, gai horien inguruan gogoz aritu dira lanean 2004an eta haien txostenak amaituta egongo dira 2005eko lehen lauhilekoan. Gizarte-erakunde bakoitzaren ordezkariez gainera, aztergaiarekin zerikusia duten arloetako hainbat adituk lagundu dute lan horietan; agerraldietan parte hartu dute eta euren ezagutza eta esperientzia eskaini dizkiote lantaldeari.

“Irisgarritasuna” izeneko lantaldea

Lau bilera egin ditu 2004an: Bordelen, Santiagon, Bilbon eta Lisboan.

Hauk dira Euskadiko EGABen ordezkariak lantalde horretan:

Titularra: Rafael Puntonet del Río, lehendakaria.

Ordezkoa: Arantza Lopez de Munain Zulueta, RTA proiektuaren koordinatzailea.

Aditua: José María Uranga Ayestarán, IV. taldeko aholkularia.

“Ikerketa, Berrikuntza eta Teknologia-transferentzia” izeneko lantaldea

Bost bilera egin ditu: Bordelen, Lisboan, Cardiffen, Bilbon eta Bordelen.

Hauk dira Euskadiko EGABen ordezkariak lantalde horretan:

Titularra: Rafael Puntonet del Río, lehendakaria



Marcel Cazalék Rafael Puntoneteten esku utzi du RTAren lehendakari-kargua

Ordezkoa: Arantza Lopez de Munain Zulueta, RTA proiektuaren koordinatzailea.
Aditua: Ignacio Barrenechea González, IV. taldeko aholkularia.

Lanen garapen teknikorako laguntzailea: Leire Ozerin, azterlan eta proiektuen arduraduna.

Europako Itsasaldeko eskualde periferikoen konferentzia eta Arku Atlantikoko Batzordea

Europako itsasaldeko 149 eskualde biltzen dituen elkarte da. Europako Batasunaren garapen orekatua sustatzen du, eskualde horiek batera dituzten aktiboen balorizazioa dela bide; Europako batasun prozesuan eskualdeek parte har dezaten arduratzen da, eta Europako agintariei gogora ekartzen dizkie itsasaldeko eta periferiako eskualdeen berezitasunak eta beharrianak, Europako batasunaren testuinguruan. Sei batzorde geografikotan antolatuta dago eta horietariko bat Arku Atlantikoko Batzordea da. Atxikitako eskualdeetako agintarien ordezkariak kide formalak dira; eskualdeetako ekonomia eta gizarte arazoetarako batzordeek ere parte hartu ohi dute haren batzarretan, eta ekonomi eta gizarte eragileen sareak ere berekin elkartuta daude, hala nola Arku Atlantikoko Sarea, Arku Atlantikoko Hirien Konferentzia edo Arku Atlantikoko Nekazaritza Ganberen Elkarte.

Euskadiko EGABek honako topaketa hauetan parte hartu du 2004an.

Bilbon, 2004ko ekainaren 24an eta 25ean -Arku Atlantikoko Batzordearen Batzar Orokorra-; Stavanger-en, irailaren 22-24 bitartean -CRPMren eta haren batzorde geografikoen Batzar Orokorra-; eta Taorminan, urriaren 21ean eta 22an -CRPM eta ARFE, Europako Mugaldeko Eskualdeen Elkarte- izenburu honen pean: "Europako lurralde-lankidetzaren 2006tik aurrera: eskualdeen proposamenak".

Short Sea Shipping delakoa Sustatzea eremu Atlantikoan

Europar eta EAEn, salgaietarako garraiobideen arteko desoreka handia dago. Errepidea da jaun eta jabe; horren ondorioz bide-sarea gainezka dago eta ingurumenaren gaineko eragina larria da. Egoera horrek bultzatuta, Euskadiko EGABek Eremu Atlantikoan short sea shipping-a sustatzeko proiektu batean parte hartu du, Eremu Atlantikoko hainbat gobernu eta portuekin batera. Arazoak bereziki larriak dira gure autonomi erkidegoan, Pirinioetako pasabide atlantikoan leku estrategikoa duelako, barneko trafiko handia duelako eta joan-etorri asko izaten direlako kontinenteko iparraldetik hegoaldera eta penintsulako ekialdetik mendebaldera; hurrengo urteetan joan-etorri horiek ugaritu egingo dira eta ageri-agerikoa da ordezkotako garraiobideak sustatzeko premia. Proiektuaren azken helburua hau da: eskualde atlantikoak itsasertzean daudenez eta portuak badituztenez, gaur egun errepidez garraiatzen diren salgaietako batzuk itsasoz garraiatzea.

Eusko Jaurlaritzak da proiektuko burua eta aitzindaria, eta Europako INTERREG IIB programak proiektua finantzatzen lagundu du. Horrela bada, Euskadiko EGABek, Akitaniako eta Poitou-Charentesko gobernuak, Gloucestershire County Council eta Bilbo, Pasaia, Gijon, Vigo eta Leixoesko portuak lankide dituela, sakonean aztertu du ibilbide laburreko itsas garraioak zer nolako baldintzak bete behar lituzkeen errepidearekin lehiatu ahal izateko salgaien garraioan, eta horrela errepideko trafikoak itsasora aldatu ahal izateko. Halaber, Short Sea Shipping delakoa gutxiago kutsatzen duen garraiobide gisa sustatzeko neurri osagarriak hartzeko asmoa dago.

Proiektua garatzeko, Zuzendaritza Batzordeak sei bilera egin ditu (bi bilera Gasteizen eta bana Bilbon, Vigon, Gloucesterren eta Oporton). Proiektuan parte hartzen duten erakunde guztien ordezkariak osatzen dute Zuzendaritza Batzordea.

IV

Giza baliabideen eta baliabide materialen kudeaketa

Giza baliabideen eta baliabide materialen kudeaketa

2004ko AURREKONTUA



Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2004. urtean 1.998.520,31 euroko aurrekontua izan du. Kopuru horretatik 1.560.000,00 euro EAeko Aurrekontu Orokorretatik finantzatu dira; 47.292,51 euro EGEFen diru-laguntzetatik, EGABek INTERREG IIIB "EREMU ATLANTIKOA" proiektuetan parte hartu baitu; 331.715,80 euro, aurreko ekitaldiko gerakinen kargura, eta 28.000,00 euro, finantza-sarrerren kargura.

Azpitarratzekoa da 2004ko aurrekontuaren likidazioan %90,65eko betetze-maila lortu dela, 2003an bezalatsu, orduan betetze-maila %90,09koa izan baitzen.

Gastu eta Sarrerren 2004ko Aurrekontu Arrunta kapitulu nagusi hauetan banatu da:

	AURREKONTUA	BETE DENA	MAILA
2004ko GASTUAK	1.998.520,31	1.811.577,29	90,65%
I. kapitulua.- Langileen gastuak	734.330,88	713.738,87	97,20%
II. kapitulua.- Funtzionamendu gast.	888.664,44	820.616,19	92,34%
III. kapitulua.- Finantza-gastuak	30,00	51,12	170,40%
IV. kapitulua.- Transf. eta d.-lag.			
Gastu arrunta. Kideen transferentziak	338.495,00	265.433,95	78,42%
VI. kapitulua.- Inbertsioak	37.000,00	11.737,16	31,72%
2004ko SARRERAK	1.998.520,31	1.811.577,29	90,65%
IV. kapitulua.- Transf. eta d.-lag. Gastu arrunta.	1.638.804,51	1.596.172,47	97,40%
Eusko Jaurilaritza	1.591.512,00	1.560.000,00	98,02%
EGEF	47.292,51	36.172,47	76,49%
V. kapitulua.- Ondare sarrerak.			
Finantza-sarrerak	28.000,00	22.817,58	81,49%
Aurreko ekitaldietako gerakinak	331.715,80	192.587,24	58,06%

Gastuen likidazioen bilakaera historikoa ikusirik, esan daiteke erakundeak aurrera egin duela eta sendotu egin dela, eta beraren aholkularitza-eginkizunak ere bide beretik joan direla:



BATZORDEAREN ZERBITZUAN ARI DIREN LANGILEAK

Hamaika lagun ari dira Euskadiko EGABen zerbitzuan, zenbait lan-arlotan banaturik.

Azterlanak eta Proiektuak: Patxi Sasigain, Arantza López de Munain, Arantza Unzurrunzaga, Leire Ozerin

Prensa eta Dokumentazioa: Maje Sáez, Begoña Etxebarria

Administrazioa eta Zerbitzuak: Gabriel Muro

Zuzendaritzako idazkaria: Arantza Miñambres

Zerbitzu Orokorrak: Beatriz Cerezo, Aitor Crespo, Ane Torres



V

Euskadiko EGBren Dokumentazio eta
Prensa Zerbitzua

Euskadiko EGBren Dokumentazio eta Prentsa Zerbitzua

Dokumentazio eta Prentsa Zerbitzuak Dokumentazio Zentroa kudeatzen du. Zentro horrek dokumentazio-laguntza ematen die Batzordeko kideei eta langile teknikoei, euren lanak egiteko. Gainera, Prentsa Zerbitzuak argitalpenen edizioa eta Batzordearen komunikazio-estrategia ere kudeatzen ditu, eta 2004az gero aktiboki parte hartzen du RTAren (Arku Atlantikoko Sarea) komunikazio-estrategian eta diseinu korporatiboan.

DOKUMENTAZIO ZENTROA



HEMEROTEKA

Egunero-egunero prentsan agertutako gizarte eta lan arloko albiste nagusien bilduma, eta irrati eta telebistako albistegiak transkribatzen dituen beste bilduma bat koordinatu eta banatzen dira (bi banaketa egoten dira, goizean eta arratsaldean). Bi bildumak posta elektronikoaren bidez banatzen dira, EGAB barruan.

Hemerotekaren edukiak datu-base batean gordetzen dira, non zerbitzua hasi zene-

tik, 2000. urtetik, ateratako informazioak bilduta dauden.

Hartara, 2004. urtea amaitzean, gizarte eta lan arloko albisterik garrantzitsuenak biltzen dituen datu-basean prentsa idatziko 18.400 dokumentu eta irrati eta telebistan emandako informazioei buruzko 115.500 dokumentu zeuden. Dokumentuen datu-base horretara edozein sar daiteke, doan, gure web orrialdetik (www.cesvasco.es).

LIBURUTEGIA

2004. urtearen amaieran Batzordearen liburutegian zegoen dokumentu-funtsa 3.063 unitate fisikok osatzen zuten, denak datu-basean erregistratuta. Zenbateko horri legeriaren eta jurisprudentiaren buletinak eta erregistro automatizatu horretan sartzen ez diren bestelako liburuxka eta aldizkari sortak ere gehitu behar zaizkio.

AGIRIEN BILAKETAK

Zerbitzu horrek agirien bilaketak eskaintzen dizkie Batzordeko kideei eta langile teknikoei, euren lanak egiteko.

ARGITALPENAK

Batzordearen baitan onesten diren edukien (irizpenak, memoriak, txostenak) ondorengo ekoizpena Prentsa eta Dokumentazio Zentroaren lana da, bera arduratzen baita diseinua egiteaz, argitalpen guztiak Euskadiko EGABen erakunde-nortasunaren eskuliburuan jasotako ildo estetikoetara molda daitezten.

Halaber, testuen itzulpen, maketatze, zuzenketa, inprimaketa eta banaketa prozesuak koordinatzen dira. Argitalpenak posta-bidalketen eta web orriaren bidez banatzen dira. Zerbitzu honek, 2004an, lehenengo RTA Aldizkaria idatzi eta diseinatu du, baita lankidetzaren sare horretako bazkideei banatu ere.

Hona hemen 2004an zehar argitaratu eta banatu diren lanak:

- 2003ko Jardueren Memoria. Edizio elebiduna, 1.000 ale.
- 2003ko Memoria Sozioekonomikoa. Gaztelaniazko edizioa, 1.500 ale.

Euskarazko edizioa, 450 ale.

- Irizpen baten edizio elebiduna, 800 ale.
- Azterlana: Enplegurako politika aktiboak EAEn eta EBn.

Gaztelaniazko edizioa, 850 ale

Euskarazko edizioa, 350 ale

- Azterlana: Soslai profesional berriak Jakintzaren Aroan.

Edizio elebiduna, 850 ale

- RTA NEWS. 1. zenbakia, frantsesez, ingelesez, gaztelaniaz eta portugesez argitaratua. 12.500 ale



EUSKADIKO EGAB ETA KOMUNIKABIDEAK

Batzordean prestatzen diren azterlan, irizpen eta memoriak, baita jendearen intereseko jarduerak ere (jardunaldiak, mintegiak, agerraldiak, beste erakunde batzuekiko topaketak...) hedabideei eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurune sozioekonomikoko iritzi-aitzindariari bidaltzen zaizkie.

Erabaki edo irizpenak direnean, hedabideetara bidaltzeko prentsa oharra prestatzen da. Eduki horiek guztiak Interneten daude, Euskadiko EGABen web orriko "Notas de Prensa- Prentsa Oharrak" atalean.

Zabaldu nahi diren edukien garrantziaren arabera, kazetariari deialdia egin ala ez erabakitzen da.

2004an zehar 9 harreman izan genituen hedabideekin, prentsa oharrak eta deialdiak zenbatuta. Emandako hedapenaren jarraipena eginez, 2004an, prentsa eta agentzietako albistetan, guztira 125 informazio argitaratu zirela ondorioztatzen da. Irrati eta telebistako 56 grabazio ere jaso ziren, gure Batzordearen ekimenen inguruan. Azkenik, prentsan bost elkarrizketa, telebistan bi eta irratan hiru egin zitzaizkion, hedabideek eskatuta, Batzordeko lehendakariari.

2004ko Prentsaurrekoak

2004ko maiatzaren 7an, Bilbon

AEDek antolatuturik, prentsaurrekoa egin zen "EAEko emakume enpresariak Hego Koreara egindako lehenengo negozio-misioa" aurkezteko. Honako hauek mintzatu ziren: Josune Barrena, AEDko lehendakaria; Carlos Alonso Zaldívar, diplomatikoa, Espainiako enbaxadorea izandakoa Hego Korean; Txaro Arteaga, Emakundeko zuzendari nagusia; Tontxu Campos, Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta



Ekonomi Sustapen Saileko diputatua; Ricardo Barkala, Bilboko Udaleko Ekonomi Sustapen eta Enplegu arloko zinegotzi eskuordea.

2004ko maiatzaren 11n, Bilbon

Euskadiko EGABeko lehendakaria, Rafael Puntonet, komunikabideen aurrean agertu zen, Flandriako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko lehendakari Kris Peeters-ekin batera.

2004ko apirilaren 7an, Bilbon

Euskadiko EGABeko Prentsa Kabineteak lan-gosaria antolatu zuen, Batzordearen jardueren jarraipena egin ohi duten kazetariekin biltzeko. Bilera horretan, Euskadiko EGABeko lehendakariak erakunde horren ildo estrategikoen berri eman zien kazetariari, erakundeko arloak banan-banan hartuta.

2004ko ekainaren 29an, Bilbon

Prentsaurrekoa egin zen “EAEn eta EBN Enplegu politika aktiboak” izenburuko azterlana aurkezteko. Hizketan aritu ziren Rafael Puntonet, EGABeko lehendakaria, eta Patxi Sasigain, Azterlan eta Proiektuen arduraduna.

2004ko ekainaren 27an, Bilbon

Prentsaurrekoa egin zen 2003ko Memoria Sozioekonomikoaren edukiak aurkezte-



ko. Hizketan aritu ziren EGABeko lehendakaria, Rafael Puntonet; Lan Batzordeko lehendakaria, Joaquín Ochoa; eta Azterlan eta Proiektuen arduraduna, Patxi Sasigain.

2004ko irailaren 28an, Bilbon

Prensaurrean, RTAren (Arku Atlantikoko Sarea) urtebeteko jardueraren balantzea aurkeztu zen, eta RTAko lehendakaritza Euskadiko EGABek hartua zuela jakinarazi zen. Bertan izan ziren RTAko lehendakari ohia, Marcel Cazalé (Akitaniako CERSeko lehendakaria), eta Rafael Puntonet, RTAko eta Euskadiko EGABeko lehendakaria.

2004ko azaroaren 11n, Bilbon

Prensaurrekoa egin zen “Perfil profesional berriak Jakintzaren Aroan” izenburuko azterlana aurkezteko. Bertan izan ziren Euskadiko EGABeko lehendakaria, Rafael Puntonet; M. Carmen Gallastegui, Ekonomi Batzordeko burua; eta Arantza Unzurrunzaga, Azterlan eta Proiektuen arduraduna.

2004ko abenduaren 14an, Bilbon

Prensaurrean aurkeztu zen “EAEn etxebizitza eskuratzeko arazoaren inguruko diagnostikoa” izeneko azterlana. Puntonet lehendakariarekin eta Javier Muñecas idazkari nagusiarekin batera, han izan ziren Yolanda Jubero, Lan Batzordeko burua, eta Patxi Sasigain, Azterlan eta Proiektuen arduraduna.



Irudien Artxibategia

Batzordeak izan dituen ekitaldi eta bilerarik garrantzitsuenen argazki digitalen artxibategia dauka. Argazki horiek aldizkari eta egunkariei eskaintzen zaizkie, tarteka, haien lana erraztearren.

Urteko Prentsa-Dosierra

Kontseiluaren jarduerari buruz prentsan, irratian eta telebistan emandako informazio guztiak biltzen ditu. Informazio horien edukiarekin, EGABek komunikabideetan egindako agerraldien dosier kronologikoa egiten da urtero.

RTA-ren komunikazioa

2003ko irailean sortu zen modu ofizialean RTA (ekonomi eta gizarte eragileen Arku Atlantikoko Sarea). Harrezkero, Euskadiko eta Akitaniako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako batzordeek elkarrekin koordinaturik lan egiten dute RTAren Komunikazio Estrategia garatzeko helburuarekin. Estrategia hori abiapuntu harturik, RTAk honako komunikazio-elementu hauek abian jartzea onetsi du:

Irudi Korporatiboa

RTAk, nortasun juridiko propioa duen erakundea den aldetik, irudi korporatiboa behar zuela iritzi zion. Logotipoa taxutzeko proposamen batzuk garatu ziren eta azkenean honako hau onetsi zen.



Prensa Kabinetea

Kide anitzeko prentsa kabinetea da. Komunikazio-estrategia prestatzen du, prentsa-oharrak idazten ditu, RTAren jendaurreko aurkezpen ekitaldiak antolatzen ditu eta komunikabideekiko harremanez arduratzen da.


Arduradunak.

Muriel Cultot. Conseil Economique et Social Régional D'Aquitaine

Maje Sáez. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

Web orria: <http://www.rta/atn.org>

Lehenengo zereginetakoa izan zen RTAren web orria martxan jartzea. Zenbait proposamenen arteko hautaketa egin zen eta, azkenik, edukiak garatu ziren. Horrela bada, web orria (<http://www.rta/atn.org>) indarrean dago 2004ko ekainetik. Alde batetik, edonork ikus dezakeen informazio orokorra dauka, eta bestetik, sareko bazkideentzako informazioa, pasahitza emanda eskuratu daitekeena.



RTA NEWS

RTA News albiste-buletina 2004ko irailean argitaratu eta banatu zen lehenengo aldiz. Argitalpen hori Sarearen jardueraren berri zabaltzeko tresna da, horretarako sortu baitzuten. Sei hilean behin argitaratzen da, 12.500 ale argitaraldi bakoitzean. Sareko bazkideak arduratzen dira zein bere eskualdean banatzeaz. Gainera, Europako erakunde eta iritzi-eragile guztiei bidaltzen zaie. Aldizkariaren bertsio elektronikoa eskura dago web orrian.



VI

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako
Batzordeari Aplikatu Dakioken Legeria

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari Aplikatu Dakioken Legeria

- 3/1979 LEGE ORGANIKOA, 1979ko abenduaren 18koa, Euskadiko Autonomia Estatutuaren gainekoa (BOE 306 zk., 1979-12-22koa) (EHAO 32 zk., 1980-12-01ekoa)
- 9/1997 LEGEA, ekainaren 27koa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen gainekoa (EHAO 141 zk., 1997-07-24koa).
- ERABAKIA, osoko bilkurarena, 1997ko abenduaren 18koa, zeinetan Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen funtzionamenduaren arautegia onesten den (EHAO 10. zk., 1998-01-16koa).
- 2/2000 DEKRETUA, otsailaren 25ekoa, zeinen bidez Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko a), b) eta c) taldeetako kideak kargutik kendu eta berriak izendatzen diren (EHAO 58 zk., 2000-03-23koa).
- 4/2000 DEKRETUA, apirilaren 19koa, zeinen bidez Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Adituen Taldeko kideak izendatzen diren (EHAO 87. zk., 2000-05-10ekoa).
- 6/2000 DEKRETUA, ekainaren 14koa, zeinen bidez Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Lehendakaria izendatzen den (EHAO 117 zk., 2000-06-21ekoa).
- 7/2000 DEKRETUA, abuztuaren 2koa, zeinen bidez Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kideak berritzen diren (EHAO 178 zk., 2000-09-15ekoa).



I. ERANSKINA:
2004ko Ikuskaritza-Txostena

GÓMEZ-BILBAO AUDITORES CJC, S.L., inscrita al número 23 en el Registro Especial del Instituto de Censores Jurados de Cuentas de España y al número S0204 en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas, con estudio en Bilbao, calle Diputación nº 1, emite el siguiente:

INFORME DE AUDITORÍA

1. Hemos auditado la liquidación del Presupuesto de la entidad CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL VASCO/EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA, correspondiente al ejercicio 2004, así como el balance de situación y la cuenta de pérdidas y ganancias del citado Organismo, cerrado al 31 de diciembre de 2004. Nuestra actuación tiene por objeto expresar una opinión sobre los citados estados financieros, basada en el trabajo realizado de acuerdo con las normas de auditoría generalmente aceptadas, que requieren el examen, mediante la realización de pruebas selectivas, de la evidencia justificativa de los mismos y la evaluación de su presentación, de los principios contables aplicados y de las estimaciones realizadas.

2. Presentamos, a efectos comparativos, con cada una de las partidas de la liquidación del presupuesto, del balance de situación y de la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio 2004, las correspondientes al ejercicio anterior. Nuestra opinión se refiere exclusivamente a los estados financieros del ejercicio 2004. Con fecha 8 de marzo de 2004 emitimos nuestro informe de auditoría sobre los mencionados estados financieros del ejercicio 2003, en el que expresamos una opinión favorable.

3. En nuestra opinión, la liquidación del Presupuesto del ejercicio 2004 adjunta presenta adecuadamente, según criterios presupuestarios, la actividad económica de la entidad CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL VASCO/EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA durante el citado ejercicio, y el balance de situación y la cuenta de pérdidas y ganancias adjuntos, correspondiente al ejercicio 2004, reflejan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y la situación financiera de dicha entidad al 31 de diciembre de 2004, y de los resultados de sus operaciones y de los recursos obtenidos y aplicados, de conformidad con principios y normas contables generalmente aceptados, que guardan uniformidad con los aplicados en el ejercicio anterior.

GÓMEZ-BILBAO AUDITORES CJC, S.L.



Fdo.: Javier Angulo Gómez



Hecho en Bilbao
GÓMEZ-BILBAO
AUDIT. CJC, S.L.
n.º 2.004 de 2004
0000000000

Este informe está sujeto a la Ley
17/1983 de 26 de junio del ICJ
con carácter de Ley de mediación

Bilbao, 23 de marzo de 2005